

EUNATELOX ENPRESAREN ESTATUTUAK

(Enpresaren LOGOA)



1. KAPITULUA. INFORMAZIO OROKORRA

1. xedapena: izen soziala eta marka izena

- **Izen Soziala:** Eunatelox S.KOOP
- **Marka izena:** EUNATELOX

2. xedapena: helbide soziala

- Helbidea: Calle Ezkaba, 36, Pamplona/Iruña NAVARRA (ESPAÑA)
- Posta kodea: 31015
- Telefonoa: 848 431 030
- Posta elektronikoa: eunatelox@gmail.com

3. xedapena: kooperatibaren jarduera ekonomikoa edo zeregina

- Nafar produktuak beste erkidegoko bezeroei eskeiniko dizkiegu.
- Erositako produktuen sustapena egingen da.
- Irabaziak lortzeko helburuarekin, lortutako produktuak salduko dira.

4. xedapena: kooperatibaren iraupena

Aurtengo ikasturteak (2020-2021) irauten duena; hau da, gutxi gorabehera, 2021-ko Maiatza-Ekaina arte. Ondoren, kooperatiba likidatuko dugu.

5. xedapena: bazkide-langile izateko baldintzak

- IES Eunate BHI ikastetxeko 2. batxilergoko ikaslea izatea eta ekintzailtza eta enpresa jardueren hastapenak ikasgaian matrikulatua egotea.
- Hasierako bazkideen ekarpena egitea (5€), eta enpresak irauten duen denboran arau guztiak betetzea (bazkideen betebeharrak betetzea).

6. xedapena: bazkideen betebeharrak

- Klasera etortzea. Taldean fundamentua egin behar da eta lana ez bada egiten, penalizatuko da.
- Lana egiteko prest egon behar dira taldekideak. Talde on bat beti egon behar da prest lana egiteko.
- Boletoak saldu eta enpresari kontribuzio ekonomikoak egin beharko dira produktuak saltzeko. Taldekide bakoitzak 10 boleto saldu behar ditu gutxienez, ekonomikoki enpresa ongi egoteko.

7. xedapena: bazkideen eskubideak

- Aktibitate ekonomiko eta sozialetan parte hartzea.
- Batzar orokorrean botoa ematea eta hitz egitea.
- Enpresaren barruan kargu bat nork izango duen aukeratzea guztion artean.
- Kooperatiba desegiten baldin bada bertan inbertitutako dirua berreskuratzea. (5 euroak)

2. KAPITULUA. SOZIETATEAREN ORGANOAK

LEHENENGO SEKZIOA: BATZAR OROKORRAK

8. xedapena: osaketa (bazkideak)

Idoia Marin, Oier Salvatierra, Nahia Diaz, Mario Alonso, Ibai Castell, Ibai Lorca, Aitor Larrea, Jon Idoate, Xabier Lamarca, Eider Diaz.

9. xedea: bilkura maiztasuna

Astean behin elkartuko gara proiektuari buruz hitz egiteko, horretarako WhatsApp talde bat sortu dugu eta asteko lau egunetan elkartzen gara proiektua egiteko eta garatzeko.

10. xedapena: akordioak hartzea

- Klasean produktu bat saltzea ala ez aukeratuko dugu. Gero, enprekin kontaktatuko dugu korreorearen bitartez haiekin akordioak egiteko eta haien produktuak saltzeko.

11. Xedapena: kooperatibaren helburu nagusia

- Enpresa bat nola kudeatu eta antolatu ikastea.
- Dirua irabaztea.
- Inbertsioaren errentagarritasuna lortzea.
- ONG bati gure %20ren irabaziak ematea.

BIGARREN SEKZIOA: KONTSEILU ERREKTOREA

12. xedapena: osaketa

- Zuzendaria: Ibai Castell.
- Zuzendariordea: Oier Salvatierra.
- Idazkaria: Aitor Larrea.
- Diruzaina: Eider Diaz.
- Diruzain ordea: Nahia Diaz.

13. xedapena: bilkura maiztasuna

Zuzendaritza errektorea hilabetean behin elkartuko da, kontuak argitzeko

3. KAPITULUA. KAPITAL SOZIALA

14. xedapena: kapital soziala

Bazkide bakoitzak 5€ jarriko du enpresa martxan jartzeko. Taldekide bakoitzak bere lana egin behar du, ondorioz lanean aurrera egingo dugu.

15. xedapena: derrigorrezko hasierako ekarpena

Bazkideek egin beharreko ekarpena 5 €-koa da.

16. xedapena: bazkideen erantzukizuna

Eunatelox erantzukizun mugatuko enpresa da, beraz, bazkideen erantzukizuna egindako ekarpenari mugatua izango da.

17. xedapena: irabazien erabilera. Lehenengo betebeharra

Kooperatibako bazkideek egindako ekarpena behin itzulita, irabazien %20a GKE batera bidaliko ditugu, sobratzen diren irabaziak guztien artean banatuko dira.

18. xedapena: irabazien erabilera. Bukaerako betebeharra

Behin bazkideei hasierako ekarpena itzulita eta irabazien %20a ADSIS Santa Lucía Fundaziora (GKE bat) bidalita, gure irabaziak taldea kohesionatzea helburu duen jarduera osagarri bat burutzeraz bideratuko dira.

19. xedapena: galerak

Galerak izaten baditugu, bazkide bakoitzak bere galera zatia hartuko du.

4. KAPITULUA. KONTUAK ETA LIBURUAK

20. xedapena: kontuak

- Kooperatibaren kontuak diruzainak eta diruzain-ordeak eramanen dituzte baina batzar orokorreko kide guztiok uneoro ikusgai izanen dituzte.
- Kontuak eguneratuta eramango dira.

21. xedapena: elkartearen dokumentazioak Kooperatibak honako liburuak eraman beharko ditu:

- Akten liburua.
- Egunkari liburua.
- Egoera-balantzea.
- Disposizio legalengatik eskatzen diren besteak.

5. KAPITULUA. LIKIDAZIOA

22. xedapena: kooperatiba desagertzearen zergatia

Kooperatibaren desagertzearen zergatia 2020-2021 ikasturtearen amaiera izango da.

23. xedapena: geratzen denarekin zer egin

Soberan geratzen diren produktuen kantitatea handia bada, Gobernu Kanpoko Erakunde bati emango diogu eta, txikia bada, gure artean banatuko dugu. Diruari dagokionez, %20a Gobernu Kanpoko Erakunde bati emango diogu eta beste %80a bazkideen artean banatuko dugu.